

Zer da Euskarazko IKTen inbentarioa?

IKTetan (Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologia) **euskararen presentzia** areagotzeko ildo estrategikoak garatzen ari da **Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren Hizkuntza Politikako Sailburuordetza**, bi ikuspegitatik:

- IKTek euskarari egiten dizkioten ekarpenak
- Euskararen presentzia IKTetan

Alde horretatik, **Euskarazko IKT proiektuen plangintzaren metodologia eta sistematika** bat ezartzea da oinarritzko ildo estrategiko bat.

Euskarazko IKTen inbentarioaren helburu nagusia da **Euskararen eta IKTen sektoreko eragileek** (hornitzaileak, kolaboratzaileak, erabiltzaile-taldeak, elkarteak) **gauzatzen dituzten proiektuen eta baliabideen** informazioa sistematikoki bilduta izatea.

Informazioa zabaltzeko zerbitzu eraginkorra, sinplea, azkarra eta eguneratua eskaini nahi da, jende guztiarentzako, oro har, eta **Euskara eta IKTen sektoreko eragile teknologikoentzako**, bereziki.

Inbentario horrekin, errazagoa izango da euskarazko Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologiekin lotutako **proiektuak, baliabideak eta erakundeak bilatzea**. Hala, euskararen eta IKTen sektorearekin lotutako **eragileek beraiek emandako informazio eguneratua** eskaini nahi da.